

Azkenaldian euskarara itzulitako literatura: bideak, joerak eta esperientziak

EHU, Udako Ikastaroak, 2013
H4 IKASTAROA

LABURPENAK

Uztailak 22, 9:15.

BEGO MONTORIO URIBARREN: Literatura Unibertsala: bilduma bat, ekarpen ugari.

Azkenaldian euskarara itzulitako literaturaren barruan, aparteko garrantzia du EIZIEk kudeatzen duen Literatura Unibertsala bildumak; besteak beste, argitaratutako liburu kopuruagatik, itzulpenak esleitzeko prozeduragatik eta eragindako gogoeta eta materialengatik.

Hitzaldi honetan, bildumaren historia eta ezaugarri nagusiak azalduko dira; bai eta horren ondorioz duela gutxi abiatu den Urrezko Biblioteka bildumarenak ere.

Horrez gain, euskal itzultzaileentzat, euskararentzat eta euskaldunen komunitatearentzat izan dituen eraginak ere aztertuko dira, hala nola Literatura Unibertsala bildumak aurrera begira dituen erronkak.

Uztailak 22, 10:45.

JOSE MANUEL LOPEZ GASENI: Euskaratutako literaturaren kanon baterako alde aurreko arauak.

Itzulpen literarioen azterketa deskriptiboen barruan, alde aurreko arauak (“preliminary norms”) itzulpenak gauzatu aurretik hartzen diren erabakiak dira. Horrelako arauak aletuko dira “Literatura Unibertsala” bildumako hiru aroetan, eta itzulitako literaturaren kanona osatzeko orduan nolako garrantzia izan (go) duten aztertuko da.

Beraz, azalpenaren lehen partean alde aurreko arauak ikusi eta eztabaidatuko dira, eta, bigarrean, kanonaren kontzeptuaren inguruko argibide batzuk eman ondoren, eta edozein kanon osatzea aukeratzea den neurrian, nolako kanona itxuratzen ari garen ikusiko dugu.

Uztailak 22, 12:15.

MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN: Hitzaurrea Literatura Unibertsala bildumari.

Literatura Unibertsala bildumako liburuak hitzaurrea dakarte. Paratestuen azterketa eginez gero, nabarmentzeko ezaugarria da hori. Ezaugarri bereizgarria da, halaber, hitzaurrea itzultzaileak berak idaztea. Zer funtzio betetzen ote dute hitzaurreak? Nolakoak dira? Zer ataletan banatzen dira? Zer diote itzultzaileek hitzaurreotan? Askotarikoak dira bildumako hitzaurreak, eta aniztasun hori aletzen saiatuko gara.

Uztailak 23, 9:15.

IBON URIBARRI ZENEKORTA: Kawabata euskaraz: kultur-jauzia sortalderantz.

Yasunari Kawabataren (川端 康成) *Nemureru bijo* (眠れる美女, *Loti ederrak*) liburuaren euskaratze prozesua eta horren baitako gorabehera batzuk azaltzea da hitzaldiaren helburua.

Hiru kolpetan egingo dugu. Hasteko, liburuaren egilea aurkeztuko dugu labur eta, bereziki, lan honen ezaugarri nagusi batzuk. Horrekin batera, azalduko dugu itzultzailea nola hurbildu den japonierara eta japoniar literaturara (kultur jauzia sortalderantz). Horrela, itzulpen ekimenaren atarian kokatuko gara: sortalderantz joan ondoren, orain sortaldetik itzuli behar dugu etxera, hitzez hitz, Kawabataren liburua japonieratik euskarara ekarriz.

Hitzaldiaren mamia itzulpen prozesuak berak osatuko du. Itzulpen hau *Literatura unibertsala* bildumaren baitan egin zen eta, beraz, esleipen eta edizio baldintza berezi batzuetan. Gainera, testuaren prestakuntza prozesuari eskainiko zaio arreta batez ere, japonieratik itzultzean testu prozesamendu eta analisirako tresneria berezia erabili baita. Eta atal hau amaitzeko, itzulpen eta berrikusketa prozesuari buruzko zenbait kontu aipatuko da.

Azken atalean, itzulpen prozesuaren eta emaitzaren gorabehera batzuk aztertuko ditugu xeheago. Besteak beste, izenburuan aipatzen den “jauzia” ezaugarritzen duten kultur erreferentzia batzuen itzulpenari eutsiko diogu.

Uztailak 23, 10:45.

BEGO MONTORIO URIBARREN: Itzulgaia testu hutsa ez denean: komikien itzulpenaren berezitasunak.

Hitzaldiak bi atal nagusi izango ditu. Batetik, komikiak itzultzerakoan kontuan hartu beharreko zenbait alor aztertuko dira; horien artean: irudiaren eta testuaren arteko lotura, komikietako testu motak, itzulpen arazo ohikoenak eta formatuak ezarritako mugak.

Beste alde batetik, azken 35 urteetan euskaratutako komikien datuak eta horien irakurketa azalduko dira: komiki motak, haur eta gazteentzakoak vs helduentzakoak, itzultzaileak, argitaletxeak...

Uztailak 23, 12:15.

XABIER PAYA RUIZ: Itzulpena amets: Calderón de la Barcaren *La vida es sueño* euskaratzeko saio teoriko-praktikoa.

Eskolaren asmoa da Pedro Calderón de la Barcaren *La vida es sueño* euskaratzeko lanaren berri ematea. Asmo horri jarraiki, saioak hiru atal izango ditu: lehenbizikoan neurtitzetan emandako antzerki lan baten itzulpenarako marko teorikoaz jardungo dugu, baita ildo bereko aurrekariez ere; bigarren atalean *La vida es sueño* lanaren frantseserako eta ingeleserako itzulpenen zenbait adibide konparatuko ditugu; eta azken atalean, Calderón de la Barcaren aipaturiko lana euskaratu osteko gorabeheren balantzea egingo dugu.

Metodologiari dagokionez, lehen atala teorikoa izango da, baina gainerako biak praktikatik abiatuko dira. Ikasleek itzulpenari heldu aurreko irizpideek partekatu beharko dituzte eta obraren zenbait pasarte labur itzuli beharko dituzte.

Uztailak 24, 9:15.

XABIER OLARRA LIZASO: Itzulpena: hamaika bidegurutzeko gurutze-bidea.

Asko eta askotarikoak dira itzultzaileak aurrean aurkitzen dituen bidegurutzeetan hartu beharreko erabakiak. Hona horietako batzuk:

- Zer itzuli eta zer ez: izenburuak, informazio topografikoak, antroponimia.
- Itzultzailearen oharrak jarri edo ez jarri. Zati itzulezinak jarri ala testua kendu.
- Itzulpen gordina eman ala egokitzapena eman.

- Jatorrizko hizkuntzan hitz neurtuz dagoena hitz neurtuz ala hitz lauz eman.
- Hitzen ordena: SOV, SVO, VSO.
- Hitzen aukera: nola aukeratu egokiena.

Euskal itzultzaileak, gainera, beste erabaki hauek ere hartu behar ditu:

- Erlatibo "erromanikoak" bai ala ez.
- Hika al zuka: solaskideen arteko elkarrizketak nola.
- Barne-gogoetak edo bakarrizketak: hika ala zuka.
- Hizkera estandarra bakarrik ala euskalkiak ere bai.

Uztailak 24, 10:45.

JON ALONSO FOURCADE: Gabe edo kin, ez da berdin: egilearen eta itzultzailearen arteko harremanaz.

Hitzaldi honetan, hizlariaren gogoeta gaia hauxe izango da: zer onura dakarren idazlearekin harremana edukitzeak literatur lan baten itzulpena egitean, hau posible den kasuetan. Horretarako, hainbat lekukotasun idatziz aparte, bere esperientzia propioaz baliatuko da, José Saramagoren *Historia do cerco de Lisboa - Lisboako setioaren historia* liburua itzultzean Pilar del Riorekin eta José Saramagorekin izandako harremanari buruzko zertzelada batzuk eskainiz. Bestalde, bigarren zati batean, obra hartako pasarte batzuk aintzat hartuko ditu, gogoeta egiteko kultur egoera historikoak itzulpenean daukan eraginari buruz.

Uztailak 24, 12:15.

HARKAITZ CANO JAUREGUI: Autoitzulpengintza edo berridazketaren tentazioa.

Ariketa gogorra izan daiteke autoitzulpena, modu zintzoan egiten denean: norberaren testuak norberaren iragana dira finean, eta gure denboraren zatirik handiena norberaren iragana berrinterpretatu edo apaintzen igarotzen dugu, hari ihes egiten ez bada. Autoitzultzailearen paradoxa: behin bere burua itzuli duenean ezinezkoa zaiola jatorrizko hizkuntzan lehen egiten zuen bezala idaztea. Zerbait aldatzen da. Zer, ordea? Onerako aldatzen da, ala txarrerako?

Itzultzaile orori erakusten zaio itzulpen literala ez dela benetako itzulpena. Testuarekiko atxikimenduak ezin duela hertsiegia izan. Ezta askeegia ere, ordea. Autoitzultzailea, sarritan, ez da benetako itzultzailea, interpretatzailea baizik. Hartzen dituen askatasunak itzulpena bertsio bilaka dezake, horrek dauzkan arrisku guztiekin... Prozesu horretan autoitzultzailearen tresnak eta ahulguneak zeintzuk diren aztertzea da asmoa.